

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

13259 *16/2021 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko babes sozialeko neurriak hartzen dituen.*

I

Maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretua onartu zuen maiatzean Gobernuak, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaratu zen alarma-egoeraren indarraldia amaitu ondoren aplikatu beharreko osasun-, gizarte- eta jurisdikzio-mailako presako neurriak hartzen dituen (926/2020 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, Alarma-egoera deklaratzeko duena SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko), eta Diputatuen Kongresuak 2021eko maiatzaren 20an baliozkotu zuen.

Maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuaren helburua hau da: alarma-egoerari lotuta zeuden eta hura amaitzean bertan behera geratzen ziren zenbait neurriren —batez ere gizarte- eta ekonomia-arlokoen— denbora-eraginkortasuna luzatzea. Luzapen horrek 2021eko abuztuaren 9ra arte zabaldu zuen babes-neurri esanguratsuenen eraginkortasuna —gizarte-eraginkortasuna, alegia—. Pandemia hasi zenetik, neurri horiek eragotzi dute, Gobernuak sustatutako beste batzuekin batera (Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedienteak edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera, besteak beste), biztanleriaren sektore handien irauteko egoera ekonomikoak okerrera egitea, bai eta, kasu batzuetan, pobrezia-atalasea deritzona ere zeharkatzea.

Neurri horien indarraldi luzatuaren amaiera-data hurbil dagoen honetan, adierazle ekonomikoei begiratu gero, eta aurreikuspenen arabera, datuek bermatutako errealitate hasi berri bat da susperraldi ekonomikoa, baina lotua dago oraindik —bilakaeraren erritmoari dagokionez— pandemiak munduan izango duen bilakaerari buruzko etengabeko ziurgabetasunarekin; egoera hori dela-eta txertaketa eta prebentzioa uztartu behar dira, eta zehaztasun handia ere behar dugu. Hain zuzen ere, egoera epidemiologikoak okerrera egiteak berretsi du zehaztasun horren beharra. «Bosgarren olatua» deiturikoa alegia; eta aurreko olatuen osasun-larrialdiko mailalara iritsi ez bada ere, ondorio negatiboak sortzen ari da Espainiako ekonomian funtsezkoak diren sektoreetan, hala nola turismoan edo ostalaritzan, zeinek eragin nabarmena baitute lan-merkatuan, bai zuzeneko enpleguetan, bai zeharkako enpleguetan.

Egoera makroekonomikoan suspertze-seinaleak agerikoak badira ere, aurreko beste krisi ekonomiko batzuetatik irteteko faseetan izandako esperientziak erakusten du susperraldiak ez duela ondoriorik berehala izaten gizabanakoen, EEEn eta familien ekonomian, eta denbora gehiago behar dela enplegua eta ahalmen ekonomikoa egonkortzeko eta aurrezteko ahalmena lehengoratzeko. Ildo horretan, askotariko gizarte-adierazleak erakusten dute oraindik ere badagoela biztanleriaren sektore ahulenei eragiteko arriskua, eta horiek dira, hain zuzen ere, errege lege-dekretu honen xede diren neurrien hartzaile nagusiak.

Maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuan jasotako zenbait neurri 2021eko abuztuaren 9an eraginik izango ez dutela aurreikusita, 2021eko urriaren 31ra arte luzatu behar da Espainiako Gobernuak kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko hartutako zenbait ekimenen indarraldia, gizarte-ondorioak ez baitira desagertu susperraldi ekonomikoaren beste fase honetan, eta horregatik, gizarte-ongizatearen egitura indartzen duten ekintza aringarriak hartu behar dira oraindik, aldi mugatu batez.

Ondorioz, zenbait neurriren indarraldia luzatzea xedatzen da, kontsumitzaile kalteberei uraren, elektrizitatearen eta gas naturalaren hornidura bermatzeko, egoera ekonomiko ahulean dauden kolektibo jakin batzuek gizarte-bonua eskuratu ahal izateko eta etxebizitzaren eremuan kalteberatasun-egoera jakin batzuei aurre egiteko.

II

Hauxe da errege lege-dekretu honen egitura: hiru kapitulu, lau artikulua, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen.

I. kapituluak kalteberatasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aplikatu beharreko ezohiko neurri batzuk jasotzen ditu, eta horien bidez, funtsean, 2021eko urriaren 31ra arte luzatzen dira kalteberatasun-egoera horiei estaldura emateko hartutako neurrietako batzuk (maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuan ezarrita), hornidura jakin batzuen bermeari eta kontsumitzaileek eta zenbait kolektibo kalteberak gizarte-bonua jasotzeko eskubideari dagokienez, bai eta etxebizitzaren errentamenduaren eremuko babes-neurri jakin batzuk ere (hemen daude neurri horiek: martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua, Gizarte- eta ekonomia arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko).

Lehenik eta behin, kontsumitzaile kalteberak babesteko neurriak indartzen dira, kontsumitzaile kalteberari uraren, elektrizitatearen eta gas naturalaren hornidura, batez ere egungo egoeretan, bermatze aldera, eta pobrezia energetikoaren fenomenoak modu estrukturalen identifikatzeko eta murrizteko garatutako esparru eraginkorren ildotik.

Horretarako, 2021eko urriaren 31ra arte luzatzen da kontsumitzaile kalteberari ura, elektrizitatea eta gas naturala hornitzeko bermea, maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan aurreikusia. Horrez gain, arau horren 5. artikulua aldatzen da (kontsumitzaile kalteberaren kategoria berri bat eratzen du artikulua horrek), elektrizitatearen gizarte-bonua eta horniduraren etetearen aurkako babes berezia jasotzearen ondorioetarako; hala bada, kontsumitzaile kalteberaren izaera hori zabaltzen da gizarte-bonua dagokion moduan jasotzeko eskubidea luzatzeko, 2021eko urriaren 31ra arte, hargatik eragotzi gabe izaera horri egun hori baino lehen edo geroagoko edozein unetan heldzea, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan —Kontsumitzaile kalteberak zein diren, gizarte-bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzekoan— aurreikusitako gainerako kasuen babesean.

Halaber, eta etxeen errealitate sozial eta ekonomikoari erantzuteko, II. kapituluak 2021eko urriaren 31ra arte luzatzen ditu martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuan ezarritako etxebizitzaren arloko kalteberatasun-egoerentarako babes-neurriak.

Horrela, lehenik eta behin, bigarren artikulua bidez, 2021eko urriaren 31ra arte luzatzen da kalteberatasun-egoeretan etxebizitzatik botatzeko prozedurak eta horien betearazpenak etetea, lehendik ezarritako kasuetan eta izapideten arabera. Era berean, artikulua horrek zabaldu egiten du, 2021eko urriaren 31 baino lehenagoko epemuga duten kontratuei dagokienez, errentamendu-kontratuaren epeari ezohiko luzapena, gehienez sei hilabetekoa, aplikatzeko aukera. Epe horretan, indarrean dagoen kontraturako ezarritako baldintzak aplikatuko dira oraindik, betiere alderdien artean bestelako akordioak lortu ez bada.

2021eko urriaren 31ra luzatzen da, orobat, errenta ordaintzea geroratzeko edo haren zati bat barkatzeko eskatzeko aukera, baldin eta errentatzailea etxebizitza-enpresa edo -erakunde publiko bat edo edukitzaile handi bat bada, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz; eta aldi horretarako bererako zabaltzen dira sei hilabeteko ezohiko luzapenari heldu ahal dioten etxebizitza-errentamenduko kontratuak, indarreko kontratuaren baldintza beretan. Hau da, zabaldu egiten da, kasu horietan, errentariak errentaren ordaintza aldi baterako eta ohiz kanpo geroratzeko duen aukera, betiere geroratze hori edo zorraren barkatze osoa edo partziala ez badute dagoeneko beren borondatez lortu bi alderdien arteko akordioaren bidez.

Hirugarren artikulua, berriz, 2021eko azaroaren 30era arte luzatzen du martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitako ezohiko etetearen eraginpean dauden etxebizitzaren errentatzaile eta titularrek abenduaren 22ko 37/2020 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako konpentsazio-eskaera aurkeztu ahal izateko epea (37/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 22koa, Etxebizitzaren esparruan eta garraioen arloan kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko premiazko neurriena).

Horrez gain, eta neurri horrekin bat etorritz, arauaren azken zatian aldatu egiten dira ekainaren 8ko 401/2021 Errege Dekretuan aurreikusitako epeak (401/2021 Errege Dekretua, ekainaren 8koa, Autonomia-erkidegoek 2018-2021eko Estatuko Etxebizitza Planaren baliabideak erabili ahal izateko behar diren neurriak onartzen dituen eman behar diren konpentsazioak ordaintzeko, eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan eta 1 bis artikuluan aipatzen diren jabe eta errentatzaileei konpentsazioa aitortzeko prozedura ezartzen duena).

Errege lege-dekretu honen III. kapituluari dagokionez, zeinak arauaren laugarren artikulua ere jasotzen baitu, genero-indarkeriaren aurkako babesaren arloko neurriak hartzen ditu barnean, eta, era horretan, 2021eko urriaren 31ra arte luzatuko da genero-indarkeriaren biktimak babesteko eta laguntzeko zerbitzuak funtsezkotzat hartzeko neurria, administrazio publiko eskudunek behar diren neurri guztiak har ditzaten, besteak beste, honako hauek bermatzeko: batetik, genero-indarkeriaren biktimei harrera- eta informazio-zerbitzuak edo aholkularitza juridikoa 24 orduz ematea, eta bestetik, biktimei gizarte-laguntza osoko zerbitzuak ematen dizkieten langileei laguntzea.

Arauaren azken zatiak, berriz, xedapen indargabetzaile bakarra eta lau azken xedapen jasotzen ditu.

Azken xedapenetako lehenengoak aldatu egiten ditu ekainaren 8ko 401/2021 Errege Dekretuan ezarritako epeak (Errege Dekretu horren bidez martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. eta 1 bis artikuluetan aipatutako jabe eta errentatzaileei konpentsazioa aitortzeko prozedura ezartzen da).

Azken xedapenetako bigarrenak aurreko xedapen horren arau-maila babestea ezartzen du.

Azken xedapenetako hirugarrenak, berriz, Espainiako Konstituzioaren eskumen-tituluak jasotzen ditu; titulu horiek Estatua babesten dute errege lege-dekretu honetan jasotako neurriak onar ditzan.

Azken xedapenetako laugarrenak, azkenik, araua *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzeko egun berean jarriko dela indarrean xedatzen du.

III

Premiak eta beharrak bultzatutako arrazoiak daude neurri horiek guztiak denboran luzatzeko, izan ere, alarma-egoera amaitu ondoren, bere horretan diraute COVID-19aren efektuek, eta arian-arian gertatzen ari da susperraldi sozial eta ekonomikoa, konfiantza berreskuratzea ahalbidetzen duen txertaketa-ehunekoa lortzen den neurrian; sektore jakin batzuen jarduera ekonomikoak, halaber, nolabaiteko murrizketak izan ditzake oraindik aldi batez, pandemiaren bilakaera eta ondorioak direla eta.

Horrela, lehenik eta behin, eta etxeetarako energia-hornidurari dagokionez, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarriak gizarte-bonuaren kategoria berri bat sortzea ezarri zuen; hala bada, baldintza jakin batzuk —besteak beste: langabezian edo aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten eraginpean egotea eta errenta-eskakizun jakin batzuk betetzea— betetzen dituzten kolektiboek gizarte-bonua jasotzeko eskubideak dakarren faktura elektrikoaren beherapena eduki ahal izango dute.

Neurri horrek iraupen mugatua zuen, baina gizarte-bonua urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan araututako gainerako kasuetan eskatu ahal zen hura amaitutakoan. Neurri horren hasierako indarraldia luzatu egin zen maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuaren 5. artikuluen bidez.

Abenduaren 22ko 37/2020 Errege Lege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriak, berriz, energia elektrikoa, gas naturala eta ura hornitzeko bermea ezartzen zuen kontsumitzaile kalteberak, kaltebera larriak diren edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden kontsumitzaileentzat; urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluetan zehaztuta daude horiek. Neurri horri aldi baterako indarraldia ezarri zitzaion, halaber, SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez aitortutako

alarma-egoeraren iraupenera —eta Diputatuen Kongresuak 2020ko urriaren 29ko ebazpenaren bidez baimendutako haren luzapenera— mugatuta, hain zuzen. Geroago, maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuaren 4. artikulua bidez luzatu zen haren indarraldia.

Horrela, bi neurri horiek —hau da, kalteberatasun ekonomiko eta sozialeko egoeran dauden kolektibo jakin batzuek gizarte-bonua jasotzeko eskubidea eta kontsumitzaile ahulei uraren, elektrizitatearen eta gas naturalaren hornidura bermatzea— 2021eko abuztuaren 9ra arte egongo dira indarrean, maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuan xedatutakoari jarraikiz.

Kontuan hartuta, batetik, neurri horiek laster jada ez direla indarrean egongo, eta, bestetik, oraingo osasun-egoeraren ziurgabetasuna dela-eta jarduera ekonomikoaren suspertze-erritmoa zein den, ezinbestekoa da oraindik kalteberatasun ekonomiko eta sozialeko egoeran dauden kolektibo jakin batzuei laguntzeko esparru juridiko bat edukitzea, gertatzen ari den suspertze ekonomikoaren ondorio onak ez baitzaizkie haiei iritsi oraindik.

Era berean, laguntza-neurri horiek osatu egiten dituzte ekainaren 24ko 12/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez hartutakoak (Errege Lege Dekretu horren bidez, energia-fiskalitatearen arloan eta energia sortzearen arloan premiazko neurriak hartzen dira, eta ura erabiltzeko tarifa eta erregulazio-kanona kudeatzen dira), energia elektrikoaren prezioen oraingo testuinguruan, balio erantsiaren gaineko zergaren murrizketaren bidez; izan ere, horrek neurri handiagoan eragiten die errenta txikieneko etxeei, eta horien artean daude, besteak beste, hala araubide arrunteko kontsumitzaile kalteberak, nola oraindik amaitu ez den osasun-egoeraren barruan errege lege-dekretu horiek hartutako neurriei heldu dietenak.

Trantsizio-egoera ekonomiko hori dela kausa, eta Europako merkatuko lehengaien kotizazioaren eta CO₂ isurtzeko eskubideen azkenaldiko bilakaera aintzat hartuta, zeinak eragiten baitu energia elektrikoaren azken prezioetan, eta bereziki kolektibo kalteberenetan, justifikatutzat jotzen da errege lege-dekretu honen lehen artikuluan aurreikusitako neurriak ahalbidetzen dituen aparteko eta presako beharrezana, Espainiako Konstituzioko 86. artikuluaekin bat etorritik, eta 2021eko urriaren 31ra arte luzatzea, ondorioz, gizarte-bonua emateko eta kontsumitzaile kalteberei uraren, elektrizitatearen eta gas naturalaren hornidura bermatzeko aldia.

Horrez gain, herrialde baten egoera sozioekonomikoak —eta bereziki COVID-19aren pandemiak eragindakoa bezalako ezohiko krisi-garaietan— zuzeneko eragina ere badu haren jarduera judizialean, eta, horregatik, organo jurisdikzionalen datuen azterketa egoki batek aukera ematen du gizarte-ekzutua deiturikoan orain arte jasotako neurrien eragin sozioekonomikoa ondorioztatzeko (herritarren sektore kalteberenak babesteko izaten dira neurri horiek).

Hala, testuinguru horren aurrean, zenbait errege lege-dekretu onartu dira, eta pandemiak herritarrei ekarritako kalte sozial eta ekonomiko larriak arintzeko askotariko neurriak hartu dituzte horiek. Zehazki, etxegabetzeak etetea 2020ko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuan sartu zen, eta 2021eko abuztuaren 9ra arte proiektatu zen.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren estatistika-buletinetatik lortutako datuen arabera, etxetik botatutako herritarren zifrak murriztea ekarri zuten 2020an hartutako neurriek. Izan ere, hipoteka-betearazpenei dagokienez, 2020an segida izan du 2019ko hipoteka-betearazpenen murrizketak. Horrela, 2020ko lehen hiruhilekoan % 8,6ko jaitsiera gertatu zen, eta % 12,6koa izan zen bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhilekoen aldean. Etxetik botatzeko prozedurei dagokienez, bai hipoteka betearaztearen ondoriozkoak, bai Hiri Errentamenduen Legearen prozeduretatik edo etxebizitzak prekarioan okupatzetik eratorritakoak, nabarmen gutxitu dira 2020ko lehen bi hiruhilekoetan, aurreko urteko hiruhileko berekin alderatuta; hala bada, % 45,1 eta % 92,1eko beherakadak izan dira hipoteka-betearazpenen kasuan, eta % 33,1 eta % 89,8koak, berriz, Hiri Errentamenduen Legearen edo prekario-etxegabetzeko epaiketen ondorioz etxetik botatzeko prozedurei dagokienez. 2020ko bigarren

hiruhilekoan, 300 baino ez ziren izan hipoteka-betearazpenen ondorioz etxetik botatzeko prozedurak, baina 3.812 izan ziren, berriz, 2019ko bigarren hiruhilekoan; hau da, ia 13 aldiz hurrengo urteko kopurua (COVID-19 pandemiaren urtea, eta horren ondoriozko gizarte-babeseke neurriak hartu zirenean).

Jakinarazpenen eta Enbargoen Zerbitzu Erkideetan etxetik botatzeko prozedurei buruz lortutako datuei dagokienez, % 26,8 gutxitu ziren 2020ko lehen hiruhilekoan, eta bigarren hiruhilekoan, berriz, % 62,6, 2019. urteko hiruhileko berekin alderatuta; aldiz, betearazpen positiboa izan zutenek (alegia, demandatutako pertsonak etxebizitza benetan utzi dutenean) beherakada nabarmena izan zuten, orobat: % 31,5 2020ko lehen hiruhilekoan, eta % 91,3 bigarren hiruhilekoan, 2019. urteko aldi beren aldean.

Hala eta guztiz ere, 2021eko lehen hiruhilekoko kopuruak ez dira batere onak; izan ere, 2020. urte osoan, auzitegietan sartutako demandak 57.482 izan ziren demandatutako pertsonak etxetik botatzea ekar zezaketen hitzezko epaiketegi zegoenez (errentamenduari buruzko hitzezko epaiketak, etxebizitzak legez kanpo okupatzeagatik jabetzari buruzko hitzezko epaiketak, eta jabetzei buruzko gainerako hitzezko epaiketak, prekario-etxegabetzeko epaiketak barne), eta 2021. urteko lehen hiruhilekoan, aldiz, era horretako 35.178 prozedura sartu dituzte. Joerak bere horretan badirau, beraz, 2021. urtea era horretako 140.000 demandarekin baino gehiagorekin amaituko dela esan nahi du horrek.

Hipoteka-betearazpenei dagokienez, 9.873 demanda aurkeztu zituzten 2020an, eta 7.081 izan dira 2021eko lehen hiruhilekoan; joera horri eutsiz gero, hortaz, hipoteka betearazteko 28.000 demandatik gora egongo dira urte honen amaierarako; urte honetan oso nabariak dira oraindik pandemiaren ondorio ekonomikoak, batez ere herritar kalteberenen artean.

Horrek honako hau esan nahi du: gizarte-babesaren arloko beste neurri batzuen ondoriozko eragina desagertzearekin batera, eta horri lotuta, kutsatzeak zabaltzea geldiarazteko administrazio-neurriak luzatzearen ondorioz (batez ere ordutegiak murriztea eta turismo-sektorearen bestelako neurri berezi batzuk), kalteberatasun ekonomikoko egoeran daude gure herrialdeko familia asko, eta haien etxebizitzetatik bota ditzaten eta bizi-baldintzak modu erabakigarrian larriagotzea ekar diezaike horrek. Hori dela eta, guztiz ezinbestekoa da babes-neurri horiek 2021eko urriaren 31ra arte luzatzea.

Eremu ekonomiko eta sozialeko egoera larria eragina izaten ari da, orobat, Espainiako etxeetan, eta horrek, batez ere etxebizitzaren eremuan, izan ditzakeen ondorio bereziak direla kausa, justifikatuta dago proposatutako neurriak hartzeko aparteko eta presako beharrez; kontuan hartu behar baitugu osasun-krisiak eta alarma-egoeraren testuinguruan hartutako neurriek izandako eragina, eta etxerik kalteberenak epe luzeagoan, urriaren 31ra arte, babestu beharra dagoela, krisitik irteteko garaian gizarte-babes hori bermatzearen.

Etxebizitza-errentamenduaren eremuan babes-neurri jakin batzuen aplikazioa luzatzeko beharrezko ondorio dira proposatutako aldaketak; hori horrela, 2021eko urriaren 31ra arte luzatu behar da kalteberatasun-egoeran daudenekin zerikusia duten etxegabete-prozedurak eta etxebizitzatik botatzeko prozedurak eteteko aukera, eta errentatzaile eta jabeen ordaina emateko aukera, bai eta, horrez gain, kontratuei sei hilabeteko ezohiko luzapena aplikatzeko epea ere —baldin eta muga-eguna 2021eko abuztuaren 9tik urriaren 31ra artean badute—, indarrean den kontratuaren baldintza beretan, betiere aldeek ez badute bestelako akordiorik egin. 2021eko urriaren 31 horretara arte luzatzen da, orobat, kalteberatasun-egoeran dagoen errentariari errenta ordaintzea geroratzeko edo haren zati bat barkatzeko eskatzeko aukera, baldin eta errentatzailea edukitzaile handi bat edo enpresa edo erakunde publiko bat bada, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

Alokairuaren eremuan, testuinguruaren bi alderdi nabarmendu behar dira, alderdiok indartu egiten baitute adierazitako babes-neurriak aldi batez zabaltzeko beharra, pandemiak eragindako gizarte- eta osasun-krisitik pixkanaka irteten ari garen gaur egungo egoeran. Lehenik eta behin, Eurostaten azken datuek erakusten dutenez,

alokairuaren ordainketarekiko gainesposizio finantzario handia da gure herrialdearen bereizgarri bat: merkatuko prezioko alokairua duten pertsonen ehuneko 37,4k ehuneko 40 baino gehiago bideratzen dute alokairua ordaintzera; Europar Batasun osoan erregistratutako alokairu-ordainketarekiko gainesposizio finantzarioaren batez bestekoa, aldiz, ehuneko 24,2koa da; hau da, ehuneko 12 baino ehuneko handixeagoa, 2019. urteko datuen arabera. Horrek esan nahi du ukitutako pertsonak eta etxeek bizitegi-bazterketa izateko arrisku argia dutela adierazle hori zehazten duten bi elementuetako baten edozein aldaketaren ondorioz; hau da, etxeen diru-sarreretan (gaur egungo testuinguruak biziki eragin die) eta alokairuaren errentan.

Horri gehitzen zaio, bigarrenik, etxebizitza-politikaren tresna nagusietako bat — lurralde-administrazio eskudunek duten gizarte-etxebizitzaren parkea— ez dela aski kalteberatasun handieneko egoerei erantzuteko; hots, diru-sarrera gutxien duten etxeei edo merkatuan etxebizitza eskuratzeko zailtasun handien duten etxeei arreta emateko. Etxebizitza eta Lurzoruaren Behatokiaren azken kalkuluen arabera (*Etxebizitza Sozialaren Aldizkari Berezia 2020*), titulartasun publikoko alokairu-etxebizitzaren parkea 290.000 etxebizitza ingurukoa da Espainia osoan, eta kopuru horrekin etxeen % 1,6ri baino zaie erantzuten. Horri dagokionez, nabarmendu behar da ezen, legegintzari dagokionez neurri garrantzitsuak abian badaude ere, hala nola etxebizitzaren arloko estatu-legeria egitea, aurrekaririk gabeko aurrekontu-ahalegina egin dela egoera hori iraultzeko, eta Estatuak, gainerako lurralde-administrazioekin koordinatuta, alokairu sozialeko etxebizitza publiko berriak eraikitzea planifikatu duela. Gaur egungo testuinguruan, etxebizitza sozialaren defizit horrek justifikatzen du alokairuaren arloko babes-neurriak aldi baterako zabaltzeko beharra, pandemiatik irteten ari garen hilabete hauetako salbuespenetzko egoeraren esparruan.

Genero-indarkeriaren aurkako babesaren arloan, COVID-19aren krisiaren hasieran, Berdintasun Ministerioak genero-indarkeriaren biktimei arreta osoa emateko zerbitzuak funtsezko zerbitzutzat jo zitezten sustatu zuen, pandemiak larriagotu egin baitzuen biktimen kalteberatasun sozial eta ekonomikoa, eta Genero-indarkeriaren biktimak babesteko eta haiei laguntzeko presako neurrien martxoaren 31ko 12/2020 Errege Lege Dekretuan islatu zen hori.

Hala eta guztiz ere, alarma-egoera amaitu ondoren, eta gizarte-ekintzaren neurriak gorabehera, genero-indarkeriaren biktimek hainbat oztopori aurre egin behar diete oraindik autonomia ekonomikoa lortzeko, zeina funtsezkoa baita indarkeriatik irteteko. Gainera, mugikortasuna murrizteko neurriak amaitzearekin batera, gora egin dute Espainian emakumeen hilketek bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria matxistaren eremuan. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzaren datuen arabera, eremu horretako emakumeen hilketen balantzea handiagoa izan zen maiatzetik ekainera arteko aldian 2021. urte honetako lehenengo lau hilabeteetako biktimena baino.

Indarkeria matxistagatiko alerta-egoera hori udaren hasieran gertatu da, eta udako hilabeteak dira, Genero Indarkeriaren kontrako Gobernuaren Ordezkaritzaren datuen arabera, emakumeen aurkako indarkeriaren prebalentzia handien dagoen aldia; alerta horrek zerikusia du, jakina, pandemiaren ondoriozko prekaritate sozioekonomikoa larriagotzearekin eta mugikortasunaren murrizketak amaitu zirenetik izan den indarkeria larriaren gorakadarekin.

Horrenbestez, areagotu egin behar dira biktimei arreta osoa ematen dieten zerbitzuen ahaleginak; izan ere, batetik, bere horretan jarraitzen dute genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen egoera sozioekonomikoari eragiten dioten oztopoek, eta bestetik, muturreko indarkeriaren gorakadak gizarte-bizikidetzari dakarzkion erronken aurrean gaude.

IV

1978ko Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake «aparteko eta presako beharrezana egonez gero», baldin eta

xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarritzko erakundeen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Errege lege-dekretu honek ez die konstituzio-artikulu horretan aipatutako gaiak eragiten; izan ere, manu guztiek maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuan hartutako ezohiko neurrien denborazko, unean uneko eta salbuespenezko luzapenak planteatzen dituzte.

Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikuluan ezarritako aparteko eta presako beharrezko kasu gaitzaileari dagokionez, konstituzio-jurisprudentziak hori erabakitzea Gobernuaren judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren parte dela adierazi du (ekainaren 7ko 61/2018 epaia, 4. OJ; irailaren 11ko 142/2014 epaia, 3. OJ). Ildo horretan, Konstituzio Auzitegiak zehaztu du errege lege-dekretuaren konstituzio-figura konstituzionala tresna konstituzional zilegi bat dela, betiere presako legeria erabiltzea justifikatzen duen helburua bada egoera jakin batean laguntzea, gobernuaren helburuen barruan, baldin eta, aurreikusten zailak diren arrazoiak direla-eta, egoera horrek berehalako arau-ekintza bat behar badu (otsailaren 4ko 6/1983 epaia, 5. OJ; urtarrilaren 17ko 11/2002 epaia, 4. OJ; uztailaren 3ko 137/2003 epaia, 3. OJ, eta uztailaren 7ko 189/2005 epaia, 3. OJ; 68/2007 epaia, 10. OJ, eta 137/2011 epaia, 7. OJ).

Are gehiago, Konstituzio Auzitegiak defendatu du errege lege-dekretua tresna egokia dela «egoera ekonomiko problematikoak» eta haren ondorio larriak arintzeko, Konstituzio Auzitegiaren epai hauen arabera: martxoaren 17ko 31/2011 epaia, 4. OJ; irailaren 14ko 137/2011 epaia, 6. OJ, eta maiatzaren 8ko 100/2012 epaia, 8. OJ. Zehazki, eta izaera sozial eta ekonomikoko neurriak hartzei dagokionez, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz bermatu du horrelako neurriak salbuespenezko eta premiazko egoeretan hartzea, COVID-19aren pandemiak gure herrialdean dituen ondorioek oraindik erakusten duten bezala (Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 13ko 110/2021 epaia (5. OJ) eta maiatzaren 13ko 111/2021 epaia (5. OJ)).

Gaur egungo egoeran osasun-agintariak COVID-19aren birusaren bosgarren olatua deitzen dutena dugu —delta aldaera protagonista izanik—, zeina gure herrialdean eta inguruko herrialdeetan eragiten ari den; pandemiaren iraunkortasuna erakusten du horrek argi eta garbi, eta berriz ere Estatuak lurralde osoan zein azkar hedatzen ari den, herritarren artean txertaketak, oro har, aurrera egin arren.

COVID-19aren pandemiaren izaera iraunkor hori (2020ko martxotik jada) larriagotzen ari da gure gizartean berez kalteberenak diren kolektiboen egoera, Estatistikako Institutu Nazionalak 2021eko uztailaren *Bizi Baldintzei buruzko Inkestari* dagokionez egindako azken txostenak erakusten duen bezala. Txosten horren arabera, pobrezia edo gizarte-bazterketa izateko arriskuan dauden biztanleen ehunekoa (ARPE tasa) % 26,4ra igo zen 2020an (% 25,3 2019an).

Espainian txertaketa etenik gabe aurrera egiten eta zabaltzen ari bada ere, eta Estatuak, Europako eta nazioarteko ikuskapen-erakunde nagusiek adierazten dituzten aurreikuspen makroekonomiko onak gorabehera, ez da lortu oraindik COVID-19aren pandemiaren aurretik zegoen egoera ekonomikoa guztiz berreskuratzea, lortzetik gertu bagaude ere. Hori horrela, kalteberatasun-egoerek irautea esan nahi du horrek, eta gizarte-arreta eta -babesa behar dute, bereziki etxe eta kontsumitzaile kalteberentzako energia-horniduraren arloan, etxebizitza-errentamenduen arloan, bai eta genero-indarkeriaren aurkako borrokan ere.

Horrela, Espainian kolektibo kaltebera horiek oraindik jasaten ari diren egoera ekonomiko eta sozialak justifikatu eta azaltzen du babes horri oraindik eusteko neurriak hartzea, etxe eta pertsona kalteberenak babestuta egon daitezten.

Hori dela eta, errege lege-dekretu honetan jasotako neurri bakoitzerako egiaztatu denez, Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikuluan aurreikusitako kasu gaitzailea dago bertan, hau da, aparteko eta presako beharrezko egotea, eta, horren ondorioz, Estatuak Gobernuak neurriak hartzen jarraitu behar du nahitaez, neurri sozioekonomiko eta jurisdikzionalen indarraldia luzatu ahal izateko; izan ere, maiatzaren 4ko 8/2021 Errege

Lege Dekretuaren bidez erabakitako neurri horien indarraldia laster amaituko da, eta neurri horiek gaur egun funtsezkoak dira oraindik herritarren gizarte-ongizaterako. Laburbilduz, aurreko apartatuetan azaldu bezala, hartutako neurri guztiak beharrezko eta nahitaezkoztat jotzen dira ukitutako interes orokorreari erantzuteko, eta (uztailaren 21eko 139/2016 KAE, 3. OJ) «zentzuzko lotura edo egokitasun-lotura bat dago kasu gaitzaileko egoera zehatzaren eta lege-dekretuan hartzen diren neurrien artean» (horrela, hasiera batetik, maiatzaren 31ko 29/1982 KAE, 3. OJ, eta berriago batzuk, ekainaren 12ko 96/2014 KAE, 5. OJ, eta azaroaren 6ko 183/2014 KAE, 4. OJ).

Bestalde, argi dago, legegintza-prozedura arrunta aukeratuz gero, nahiz eta arauz aurreikusitako presako izapidetzea administrazio-egoitzan zein legebiltzarrean deklaratu, ez litzatekeela garaiz eta forman lortuko neurri sozioekonomiko horiek onartzea, COVID-19aren pandemiak eragindako krisi sanitario, ekonomiko eta sozialaren ondorioz sortu diren azaldutako egoerei beharrezko babes juridikoa emateko. Horrela, konstituzio-jurisprudenzia betetzen da, neurriak ohiko bidetik edo legeak parlamentuan izapidetzeko presako prozeduraren bidez eskatutakoa baino epe laburragoan hartu behar direla eskatzen baitu (Konstituzio Auzitegiaren 68/2007 epaia, 10. OJ, eta 137/2011 epaia, 7. OJ).

Azkenik, errege lege-dekretuak erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu, arau-testu guztietan eskatu beharrekoak, zeinak jasota baitaude Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko Legearen 129. artikuluan.

Hala, beharrezana, eraginkortasuna eta efizientzia interes orokorrean oinarritzen dira, eta interes horretan oinarritzen dira kolektibo eta etxe kalteberenentzat ezarritako babes-neurriak. Proporzionaltasun-printzipioa ere errespetatzen da; izan ere, arau honetan jasotzen den neurrien indarraldia luzatzea beharrezkotzat eta ezinbestekotzat jotzen da pandemiaren ondorioz kolektibo horiek duten kalteberatasun-egoera, zentzuzko eta salbuespenezko epe batez, arintzeko (uztailaren 21eko 139/2016 KAE).

Era berean, araua bat dator indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin, eta, horrenbestez, segurtasun juridikoaren printzipioarekin. Eta, azkenik, gardentasun-printzipioari dagokionez, lege-dekretu bat izanik kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideetatik salbuetsita badago ere —Gobernuari buruzko azaroaren 27ko Legearen 26.11 artikulua baimendu bezala—, arau honek argi eta garbi definitzen ditu bere helburuak, hala azalpen-zatian, nola erantsitako memorian.

Ondorioz, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluan jasotako baimena erabiliz, Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetarako eta Memoria Demokratikoko ministroak proposatuta, eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroak, Justiziako ministroak, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroak, Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako ministroak eta Berdintasuneko ministroak proposatuta, Ministro Kontseiluak 2021eko abuztuaren 3ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

Kalteberatasun ekonomiko eta sozialeko egoeretan aplikatu beharreko ezohiko neurriak

Lehenengo artikulua. *Maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretua aldatzea. 8/2021 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 4koa, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaratu zen alarma-egoeraren indarraldia amaitu ondoren aplikatu beharreko osasun, gizarte eta jurisdikzio mailako presako neurriak hartzen dituen (926/2020 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, Alarma-egoera deklaratu duena SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko).*

8/2021 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 4koa, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaratu zen alarma-egoeraren indarraldia amaitu ondoren aplikatu

beharreko osasun, gizarte eta jurisdikzio mailako presako neurriak hartzen dituen (926/2020 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, Alarma-egoera deklaratzeko duena SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko), honela geratzen da aldatuta:

Bat. Honela geratzen da idatzita 4. artikulua 1. apartatua:

«1. 2021eko urriaren 31ra arte, berau barne, ezin izango zaie energia elektrikoaren, gas naturalaren eta uraren hornidura eten urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluen arabera kontsumitzaile kalteberatzat, kaltebera larritzat edo gizarte-bazterketa sufritzeko arriskuan dauden kontsumitzailetzat jotzen direnei (897/2017 Errege Dekretua, urriaren 6koa, Kontsumitzaile kalteberaren figura, gizarte-bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileak babesteko beste neurri batzuk arautzen dituen). Gas naturala eta ura hornitzen duten enpresen aurrean kontsumitzaile kaltebera dela egiaztatzeko, nahikoa izango da elektrizitatearen gizarte-bonua jasotzen dela islatzen duen elektrizitatearen azken faktura aurkeztea.»

Bi. Honela geratzen da idatzita 5. artikulua 7. apartatua:

«7. Nolanahi ere, artikulua honetan aurreikusitako kontsumitzaile kalteberaren izaera, eta, beraz, gizarte-bonua dagokion moduan jasotzeko eskubidea, 2021eko urriaren 31n iraungiko da, hargatik eragotzi gabe izaera hori data horren aurreko edo ondorengo edozein unetan baliatzeko aukera, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan aurreikusitako gainerako kasuen babesean.»

II. KAPITULUA

Etxebizitzaren arloko neurriak

Bigarren artikulua. *COVID- 19ari aurre egiteko, gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Aldatu egiten da COVID-19ari aurre egiteko, gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua, honela:

Bat. Honela geratzen da idatzita 1. artikulua:

«1. artikulua. *Etxegabetze-prozedura eta etxetik botatzeak etetea beste bizilekurik ez duten etxe kalteberei dagokienez.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2021eko urriaren 31ra arte, errenta-erreklaazioei edo errentariak zor dituen zenbatekoei buruzko hitzezko epaiketa guztietan, edo Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen arabera izenpetutako kontratuen iraupen-epea amaitzen denean, baldin eta finkaren jabetza berreskuratu nahi bada —Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 441.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz prozesua aurretik eten den edo ez alde batera utzita—, errentariak, artikulua honetan aurreikusitakoaren arabera, epaileari eska diezaioke etxegabetzea edo etxetik botatzea etetea aparteko intzidente bat, ekonomia-kalteberatasun egoeran egonik ezin badu aurkitu beretzat eta berarekin bizi direnentzat beste bizilekurik.

Halaber, etxetik botatzeko datarik ez badago, Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 440.3 artikuluan aipatutako hamar eguneko epea igaro ez delako, edo ikustaldia egin ez delako, eten egingo da epe hori edo ikustaldia.

Salbuesenez eta aldi baterako ezartzen diren etete-neurri horiek, nolanahi ere, indargabetu egingo dira 2021eko urriaren 31n.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako etetea gauzatzeko, errege lege-dekretu honen 5.1 artikularen a) eta b) letretan deskribatutako kalteberatasun ekonomikoko egoeraren batean dagoela egiaztatu beharko du errentariak, 6.1 artikuluan aurreikusitako dokumentuak aurkeztuz. Justizia Administrazioaren letraduak egiaztapen horren berri emango dio demandatzaileari, eta hark, gehienez ere hamar eguneko epean, epaitegiaren aurrean egiaztatu ahal izango du, bitarteko berberak erabilita, kalteberatasun ekonomikoko egoera berean dagoela —5.1 artikularen a) letran deskribatuta dago egoera hori—, edo egoera hori izateko arriskuan dagoela, etxetik botatzea eteteko neurria hartzen bada.

3. Aurreko idazkiak aurkeztu ondoren, Justizia Administrazioako letraduak berehala helarazi beharko die dokumentazio guztia gizarte-zerbitzu eskudunei, eta txosten bat eskatuko die zerbitzu horiei. Txosten hori gehienez ere hamar eguneko epean egin beharko dute, eta horren bidez, errentariaren eta, hala badagokio, errentatzailearen kalteberatasun-egoera balioetsi eta administrazio eskudunak aplikatu beharreko neurriak identifikatuko dituzte.

4. Epaileak, aurkeztutako dokumentazioa eta gizarte-zerbitzuen txostena ikusita, auto bat emango du, eta etxetik botatzea etetea erabakiko du auto horren bidez, baldin eta kalteberatasun ekonomikoko egoera, eta, hala badagokio, errentatzailearen kalteberatasuna ez dela gailendu behar, egiaztatutzat jotzen bada. Errentariak kalteberatasuna egiaztatzen ez badu edo errentatzailearen kalteberatasun-egoera gailentzen bada, prozedurak aurrera jarraitzea erabakiko du. Nolanahi ere, etetea xedatzen duen autoak esanbidez adieraziko du 2021eko urriaren 31n automatikoki berrekingo zaiola Prozedura Zibilararen urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 440.3 artikuluan aipatutako egunen zenbaketari, edo ikustaldia eta, hala badagokio, etxetik botatzea egiteko data adieraziko da, prozesua zer egoeratan dagoen aintzat hartuta.

Kalteberatasuna egiaztatu ondoren, etetearen gehieneko epea amaitu baino lehen, gizarte-zerbitzuen txostenean adierazitako neurriak hartu beharko dituzte administrazio publiko eskudunek, bai eta kalteberatasun-egoeran dagoen pertsonaren bizileku-premia asetzeko egokitzat jotzen dituzten beste neurri batzuk ere, etxebizitza duina eskuratzea bermatuko dutenak. Neurri horiek aplikatu ondoren, eskumena duen administrazioak berehala jakinarazi beharko dio auzitegiari, eta Justizia Administrazioako letraduak gehienez ere hiru eguneko epean dekretua eman beharko du prozeduraren etetea bertan behera uzteko.

5. Prozedura Zibilararen urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 150.4 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, errentariaren adostasuna dagoela ondorioztatuko da eteteko eskabidea aurkezte hutsagatik.

Era berean, artikulua honetan jasotzen den komunikazioa egiteko errentatzailearen adostasuna dagoela ulertuko da bere kalteberatasun ekonomikoko egoeraren berri ematen duen idazkia aurkezte hutsagatik.»

Bi. Honela geratzen da idatzita 1 bis artikulua:

«1 bis artikulua. 2021eko urriaren 31ra arte etetea etxegabetzeko prozedura eta etxetik botatzeak beste bizilekurik ez duten pertsona ekonomikoki kalteberei dagokienez, hain zuzen, Prozedura Zibilararen urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 250.1 artikularen 2., 4. eta 7. apartatuetako kasuetan, eta etxegabetzea zigor-arloko prozedura baten ondorioz baldin bada.

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2021eko urriaren 31ra arte, epaileak ahalmena izango du etxetik botatzea 2021eko urriaren 31ra arte eteteko, Prozedura Zibilararen urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 250.1 artikuluko 2., 4. eta 7. apartatuetan aipatzen diren demandak bideratzen dituzten ahozko epaiketetan, edo ohiko etxebizitzatik inolako gaikuntza titulurik gabe haietan bizi diren pertsonak botatzea dakarten gainerako zigor-arloko prozesuetan.

Salbuespenez eta aldi baterako ezartzen diren etete-neurri horiek indargabetu egingo dira, nolana ere, 2021eko urriaren 31n.

2. Aurreko apartatuaren arabera etxetik botatzea eten ahal izateko, etxebizitza horiek hamar etxebizitzaren baino gehiagoren titular diren pertsona juridikoenak edo pertsona fisikoenak izan beharko dira, eta titulurik gabe haietan bizi diren pertsonak kalteberatasun ekonomikoko egoeran egotea, 5.1 artikulua a) letran deskribatutako egoeraren batean daudelako.

Epaileak kasu zehatza neurritz eta proportzioz balioetsi ondoren hartuko du erabakia, eta, besteak beste, inguruabar hauek hartuko ditu kontuan:

a) Higiezinean sartzea edo bertan egotea premia larriko egoera baten ondorio ote den. Beharizan-egoera aztertzeko, gizarte-zerbitzuen txostena behar bezala balioetsiko da (txosten hori hurrengo apartatuaren arabera egingo dute).

b) Etxebizitzako biztanleak agintari eskudunekin elkarlanean aritzen ote diren, etxebizitza duina izateko eskubidea bermatzen dien beste bizileku baterako irtenbideak bilatzeko orduan.

3. Aurreko apartatuan aipatutako etetea gauzatu dadin, etxebizitzan titulurik gabe bizi denak honako hau izan beharko du: mendeko pertsona, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 2. artikulua bi apartatuan xedatutakoaren arabera; emakumearen aurkako indarkeriaren biktima, edo ardurapean mendekotasuna duen pertsonaren edo adingaberen bat duena, zeinak etxebizitza berean bizi behar baitu.

Nolana ere, titulurik gabe etxebizitza okupatzen duten pertsonak egiaztatu beharko dute, gainera, errege lege-dekretu honen 5.1 artikulua a) letran deskribatutako kalteberatasun ekonomikoko egoeraren batean daudela, 6.1 artikuluan aurreikusitako dokumentuak aurkeztuta. Justizia Administrazioako letraduak demandatzaileari edo salatzaileari helaraziko dio egiaztapen hori.

4. Justizia Administrazioako letraduak dokumentazio guztia berehala helarazi beharko die gizarte-zerbitzu eskudunei, eta txosten bat eskatuko die zerbitzu horiei. Txosten hori gehienez ere hamabost eguneko epean egin beharko dute, eta higiezina etxebizitza hartuta duen edo duten pertsonaren edo pertsonen kalteberatasun-egoera balioetsiko dute bertan, eta administrazio eskudunak aplikatu beharreko neurriak identifikatuko dituzte.

5. Etxebizitzan bizi den pertsonaren kalteberatasun-egoera egiaztatu eta epaileak gainerako inguruabar guztiak aztertu ondoren, autoa emango du, eta, hala badagokio, 2021eko urriaren 31ra arte geratzen den denborarako etetea erabakiko du. Eskatzaileak ez badu kalteberatasuna egiaztatzen edo ez badago 2. apartatuan adierazitakoaren arabera etetea eskatzeko eskubidea duten pertsonen artean, edo 6. apartatuan aurreikusitako inguruabarretako bat gertatzen bada, epaileak prozedurarekin jarraitzea erabakiko du auto bidez.

Eteteko ezarritako gehieneko epean, eta kalteberatasun ekonomikoa egiaztatu bada, administrazio publiko eskudunek gizarte-zerbitzuen txostenean adierazitako neurriak hartu beharko dituzte, edo kalteberatasun-egoeran dagoen pertsonaren bizileku-premiari erantzuteko egokitzat jotzen dituzten bestelako neurriak, etxebizitza duin bat eskuratzeko aukera bermatzearen. Neurri horiek hartu ondoren, administrazio eskudunak berehala jakinarazi beharko dio auzitegi eskudunari, eta epaileak gehienez hiru eguneko epean eman beharko du autoa, prozedura etetea bertan behera uztea eta dena delako etxetik botatzea erabakitzeko.

6. Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 150.4 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, demandatuaren adostasuna dagoela ondorioztatuko da eteteko eskubidea aurkezte hutsagatik.

7. Artikulu honetan aipatzen den eteterako aukerarik ez da egongo, baldin eta etxebizitzan sartzea edo egotea kasu hauetan gertatu bada:

a) Pertsona fisiko baten jabetzako higiezin batean gertatu denean, baldin eta higiezin horretan ohiko bizilekua edo behar bezala egiaztatutako bigarren bizilekua badu, zenbat etxebizitzaren jabe den alde batera utzita.

b) Pertsona fisiko edo juridiko baten jabetzako higiezin batean gertatu denean, baldin eta higiezin hori zuzenbidean baliozkoa den edozein tituluren bidez pertsona fisiko bati utzi badio, eta pertsona horrek bertan ohiko bizilekua edo bigarren bizilekua, behar bezala egiaztatua, badu.

c) Higiezzinean sartzeko edo bertan egoteko, pertsonen aurkako larderia edo indarkeria erabili denean.

d) Etxebizitza legez kanpoko jarduerak egiteko erabiltzen ari delako arrazoizko zantzuak daudenean.

e) Gizarte-etxebizitza erabiltzeko diren titulartasun publikoko edo pribatuko higiezzinetan sartu edo egonez gero, eta etxebizitza kudeatzen duen administrazioak edo erakundeak, jada, eskatzaile bati esleitu badio etxebizitza hori.

f) Etxebizitzan errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren sartu badira.»

Hiru. Honela geratzen da idatzita 2. artikulua:

«2. artikulua. *Ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuaren aparteko luzapena.*

Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legea bete behar duten ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuaren, baldin eta lege horren 9.1 artikuluan xedatutako nahitaezko luzapena edo 10.1 artikuluan ezarritako isilbidezko luzapena errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2021eko urriaren 31ra arteko aldian amaitzen bada, errentamendu-kontratuaren iraunaldiari aparteko luzapena, sei hilabetekoa gehienez, aplikatu ahal izango zaio, errentariak eskatu ondoren, eta aldi horretan indarrean dagoen kontraturako ezarritako baldintzak aplikatuko dira oraindik. Errentatzaileak onartu beharko du aparteko luzapen hori, betiere alderdiek ez badute bestelako baldintzarik adostu, edo errentatzaileak jakinarazi badu, Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 9.3 artikuluan ezarritako epeak eta baldintzak beteta, errentan hartutako etxebizitza hori etxebizitza iraunkor gisa erabili behar duela, berarentzat edo senideentzat (odol-ahaidetasunekoak edo adopzio bidezkoak izan), edo ezkontidearentzat (banantzeari, dibortzioari edo ezkontza-deuseztasunari buruzko epai irmoa dagoenean).»

Lau. Honela geratzen da idatzita 4. artikulua 1. apartatua:

«1. Baldin eta Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen babesean sinatutako ohiko etxebizitzaren kontratu baten errentaria kalteberatasun ekonomikoko egoeran badago, hurrengo artikuluan zehazten den bezala, eta errentatzailea etxebizitzaren arloko enpresa edo erakunde publikoa edo edukitzaile handia bada (hau da, hamar hiri-ondasun higiezin baino gehiagoren titularrak, garajeak eta trastelekuak zenbatu gabe, edo 1.500 m²-tik gora eraikita dauden higiezin baten titularrak den pertsona fisikoa edo juridikoa), errentariak errentatzaileari eskatu ahal izango dio 2021eko urriaren 31ra arte errentaren ordainketa aldi batez eta aparteko neurri gisa geroratzeko; nolana ere, hori eskatzeko, ezinbestekoa izango da bi alderdiak lehendik adostuta ez edukitzea ordainketa geroratzea edo ordaindu beharreko kopuru osoa edo zati bat barkatzea.»

Hirugarren artikulua. *Etxebizitzaren esparruan eta garraioen arloan kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko premiazko neurrien abenduaren 22ko Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Aldatu egiten da 37/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 22koa, Etxebizitzaren esparruan eta garraioen arloan kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko premiazko neurriena, era honetan:

Bat. Honela geratzen da idatzita bigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatua:

«2. Konpentsazioa honako hau izango da: higiezina dagoen inguruko etxebizitza-alkairu bati legokiokeen batez besteko balioa, etxebizitzaren alokairuaren prezioaren erreferentzia-indizeen arabera edo errentamendu-merkatuaren beste erreferentzia objektibo adierazgarri batzuen arabera zehaztua, gehi errentatzaileak bere gain hartu dituela egiaztatutako etxebizitzaren gastu arruntak, etetea erabakitzen den unetik Auzitegiak hura altxatzen duen unera arte edo 2021eko urriaren 31ra arte. Hala ere, balio hori errentatzaileak jasotzen zuen errenta baino handiagoa bada, konpentsazioa honako hau izango da: lehen aipatutako aldi berean jaso ez duen errenta gehi gastu arruntak.»

Bi. Honela geratzen da idatzita bigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua:

«3. Konpentsazio-eskaera 2021eko azaroaren 30era arte aurkeztu ahal izango da, eta errentatzaileak bidezkotzat jotzen duen konpentsazioaren azalpen arrazoitu eta justifikatua egin beharko du, aurretik adierazitako irizpideetan oinarrituta.»

Hiru. Honela geratzen da idatzita bigarren xedapen gehigarriaren 5. apartatua:

«5. Aurreko apartatuan ezarritakoaren arabera kalte ekonomikoa dagoela egiaztatzen bada, konpentsazioa honako hau izango da: higiezina dagoen inguruko etxebizitza-alkairu bati legokiokeen batez besteko balioa, etxebizitzaren alokairuaren prezioaren erreferentzia-indizeen arabera edo errentamendu-merkatuaren beste erreferentzia objektibo adierazgarri batzuen arabera zehaztua, gehi jabeak bere gain hartu dituela egiaztatutako etxebizitzaren gastu arruntak, etetea erabakitzen den unetik Auzitegiak hura altxatzen duen unera arte edo 2021eko urriaren 31ra arte.»

Lau. Honela geratzen da idatzita bigarren xedapen gehigarriaren 6. apartatua:

«6. Konpentsazio-eskaera 2021eko azaroaren 30era arte aurkeztu ahal izango da, eta etxebizitzaren titularrak bidezkotzat jotzen duen konpentsazioaren azalpen arrazoitu eta justifikatua egin beharko du, aurretik adierazitako irizpideetan oinarrituta.»

III. KAPITULUA

Genero-indarkeriaren arloko aparteko neurriak

Laugarren artikulua. *Genero-indarkeriaren biktimak babesteko eta laguntzeko zerbitzuak funtsezkotzat jotzeko erabakiaren indarraldia luzatzea.*

1. Genero-indarkeriaren biktimak babesteko eta haiei laguntzeko presako neurrien martxoaren 24ko 1/2021 Legean aurreikusitakoaren ondorioetarako, 2021eko urriaren 31ra arte luzatzen da haren 2. artikulutik 5.era ezarritako zerbitzuak funtsezkotzat jotzeko erabakiaren indarraldia.

2. Horretarako, administrazio publiko eskudunek beharrezko neurriak hartuko dituzte berezkoak dituzten zerbitzuak emango dituztela ziurtatzeko.

3. Eskakizun bera aplikatuko zaie zerbitzu horiek emateko funtsezkoak diren enpresa eta hornitzaileei.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indargabeturik geratzen dira errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Ekainaren 8ko 401/2021 Errege Dekretua aldatzea. 401/2021 Errege Dekretua, ekainaren 8koa, Autonomia-erkidegoek 2018-2021eko Estatuko Etxebizitza Planaren baliabideak erabili ahal izateko behar diren neurriak onartzen dituen eman behar diren konpentsazioak ordaintzeko, eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan eta 1 bis artikuluan aipatzen diren jabe eta errentatzaileei konpentsazioa aitortzeko prozedura ezartzen duena; errege lege-dekretu horren bidez, gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dira COVID-19ari aurre egiteko.*

Aldatu egiten da ekainaren 8ko 401/2021 Errege Dekretuaren 3. artikulua (401/2021 Errege Dekretua, ekainaren 8koa, Autonomia-erkidegoek 2018-2021eko Estatuko Etxebizitza Planaren baliabideak erabili ahal izateko behar diren neurriak onartzen dituen eman behar diren konpentsazioak ordaintzeko, eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. eta 1 bis artikuluetan aipatzen diren jabe eta errentatzaileei konpentsazioa aitortzeko prozedura ezartzen duena —azken horren bidez gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dira COVID-19ari aurre egiteko—), eta honela geratzen da idatzita:

«3. artikulua. *Eragindako etxebizitzaren errentatzaileek edo jabeek egindako eskabideak aurkezteko, izapidetzeko eta ebazteko prozedura.*

1. Konpentsazioak lortzeko prozedura alderdi batek eskatuta hasiko da, dagokion eskabidearen bidez, zeina 2021eko azaroaren 30era arte aurkeztu ahal izango baita.

2. Errentatzaileak edo jabeak autonomia-erkidegoko edo Ceuta eta Melillako hirietako etxebizitza-arloko organo eskudunari bidaliko dio eskabidea. Eta eskabide horrekin batera, aldi honengatiko konpentsazioaren azalpen arrazoitu eta justifikatua aurkeztu beharko du: martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan ezohiko etetea —edo, bestela, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 1 bis artikuluan jasotako etxetik botatzea etetea— erabakitzen denetik etete hori Auzitegiaren erabakiz edo 2021. urteko martxoaren 31ko epemugara iritsi delako bertan behera gelditzen den arte, betiere konpentsazio hori bidezkoa bada irizpide hauen arabera:

a) Higiezina dagoen inguruko etxebizitza-alokairu bati legokiokeen batez besteko balioa, etxebizitzaren alokairuaren prezioaren erreferentzia-indizeen arabera edo errentamendu-merkatuaren beste erreferentzia objektibo adierazgarri batzuen arabera zehaztua. Balio hori errentatzaileak jasotzen zuen errenta baino handiagoa bada, jaso gabeko errenta izango da konpentsazioa.

b) Errentatzaileak edo jabeak bere gain hartu dituela egiaztatutako etxebizitzaren gastu arruntak, etetea erabakitzen denetik etete hori Auzitegiaren erabakiz edo 2021. urteko martxoaren 31ko epemugara iritsi delako bertan behera gelditzen den arte.

c) Aipatutako errege lege-dekretuaren 1 bis artikuluan jasotako etxetik botatzea eteteari dagokionez, haiek higiezinean sartu aurretik etxebizitza saldu edo alokatzeko eskainita zegoela eta horren ondorioz jasan duen kalte ekonomikoa egiaztatu beharko du jabeak.

3. Autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melillako hiriek abenduaren 22ko 37/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitako konpentsazioak izapidetuko dizkiete errentatzaileei edo jabeei, errege-dekretu honetan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Eskabidearen aurkezpena, bai eta prozeduraren gainerako izapideak ere, bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, baldin eta eskatzailea urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan jasotako subjektuen artean badago. Pertsona fisikoek urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua jasotzen dituen lekuetako edozeinean aurkeztu ahal izango dute eskabidea, eta prozeduraren gainerako izapideak bitarteko ez-elektronikoen bidez egin ahal izango dituzte, edo administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea baliatu ahal izango dute.

4. Ebazpena emateko eta interesdunari jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, baina, salbuespenez, organo eskudunak epea beste hiru hilabetez luzatzea erabaki ahal izango du, arrazoiak azalduta. Interesdunari berariaz jakinaraziko zaio hori. Gehieneko epea igarota jakinarazpenik egin ez bada, eskabidea aurkeztu duen interesdunak hura administrazio-isiltasunez ezetsi dela ondorioztatu ahal izango du.

5. Autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melillako hiriek prozedura hori garatu edo osatu ahal izango dute, haren kudeaketa eta errentatzaileak edo jabeak konpentsazioak jasotzea errazteko.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Erregelamenduzko xedapenen maila babestea.*

Errege Dekretuaren mailari eutsiko dio ekainaren 8ko 401/2021 Errege Dekretuaren 3. artikulua, azken xedapenetako lehenengoak aldatutakoak. Ondorioz, maila hori bera duen arau batek aldatu ahal izango du.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Eskumen-tituluak.*

Errege lege-dekretu honen I. kapitulua Espainiako Konstituzioaren 149.1.25 artikuluan ezarritakoaren babesean eman da, artikulua horrek Estatuari esleitzen baitio meatzei eta energiari buruzko araubidearen oinarrien arloko eskumen eskusiboa.

Errege lege-dekretu honen II. kapitulua eta azken xedapenetako lehenengoa Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 1. apartatuaren 6., 8. eta 13. zenbakien babesean ematen dira, Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen baitiote, hurrenez hurren, prozesu-legeriaren arloan, legeria zibilaren arloan, eta jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak ezarri eta hura koordinatzeko arloan.

Errege lege-dekretu honen III. kapitulua Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 1. apartatuaren 1. eta 29. zenbakien babesean ematen da, Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen baitiote, hurrenez hurren, konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarriko baldintzak arautzearen arloan eta segurtasun publikoaren arloan.

Azken xedapenetako laugarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Palman, 2021eko abuztuaren 3an

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN